



... Gaur egun marketin eta merkataritza adituak eskatzen dituzte bai bigarren sektorean eta bai hirugarrenean.

antzekoak dira biak: batean, nazioarteko merkataritzan egiten diren operazioak erakusten dira, eta, bestean, merkataritza orokorra erakusten da, baina marketinean gehiago sakonduz», dio Olazabal institutuko kide Mikel Rodriguezek.

Ikasgaiak

Merkataritza eta marketin zikloa hainbat moduluz osaturik dago. Ikasgaien artean, biltegiko eragiketak, saltokiaren girotea, salmenta eragiketak eta merkataritza establezimendu txiki baten administrazioa eta kudeaketa sartzen dira. Bestalde, informatika aplikazioak eta atzerri hezkuntza edo bertakoa ere bi modulu dira. Azkenik, lan prestakuntzak osatzen du plana. Horretan hiru modulu sartzen dira lehenik eta behin: lan prestakuntza eta orientabidea, gero kalitatea eta etengabeko hobekuntza eta, azkenik, lantokiko prestakuntza.

Ikasketa horiek egiteko DBH derrigorrezko bigarren hezkuntza eginda eduki behar da. Baina titulu hori lortu barik izanez gero, proba bat gaindituz sar daiteke. Horretarako, 18 urte eginda eduki behar dira eta, gutxienez, urtebeteko lan esperientzia. Bestalde, gizar-te garantiadun programa gainditua izatea eskatzen da.

Lan Mundua

Merkataritza eta Marketin ikasketek lan munduan irteera ugari dituzte. Adibidez, merkataria, saltzaile edo produktua jartzeko enplegatu lan egin daiteke. Denda arduraduna, saltzaile teknikoa, kutxaburua edo biltegi-zaina izateko ere balio du. Beraz, jendearekiko arreta eta zerbitzua oso garrantzitsua da lan mota horietan.

Lan horietaz gain, merkataritza ordezkaria, bezeroentzako arreta zerbitzuko enplegatu edo merkataritza

Komunikazioa eta
giza harremanak
dira lanbide
horietako giltzetako
batzuk

agentzietako enplegatu izateko ere egokia da merkataritza teknikari baten prestaketa, batez ere bezeroekin lan egiten delako. Haiekin tratuzuzena duten postuak dira, eta merkataria eta bezeroen

arteko komunikazioa ona izatea beharrezkoa da.

«Etorkizun handiko ikasketak da. Ikusi besterik ez dago zenbat zentro komertzial irekitzen diren urtero. Ikasleak praktikak egiteko lantokiak ez dira falta, eta, gainera, praktiketan egon diren ikasle gehienak gero lantoki horietan lanean jarraitzen dute», dio Arrizabalagak.

Bezeroekin harreman zuzena duten ikasketak izanik, ziklo horretan ikasi nahi duten ikasleek jendearekin harremanak edukitzea gustukoa izan behar dute.

Hala, garrantzitsua da giza harremanak eta komunikazioa lantzea, baita jendarean gorde beharreko itxura ere.

Aurrera begira

Egun, erreformaren ondorioz, ikasketa berri ugari sortu dira. Derrigorrezko Hezkuntza amaituta, erdi mailako zikloak egin daitezke edo batxilergo joan. Batxilergo egin ondoren unibertsitateko bidea aukeratu nahi ez duenak ere goi mailako zikloak egiteko aukera du.

2000-2001 Aurreinskripzioa

EGUNEKO TXANDA

LOGSE BATXILERGOA

- Natur Zientziak eta Osasuna.
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak.
- Batxilergo Teknologikoa.

MAILA ERTAINEKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Ile Apainketa.
- Zurgin Lanak eta Altzariak Neurria egin Instalatzea.
- Mekanizatu.
- Erizaintzako Zainketa Laguntzailea.
- Jantzigintza.
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak.

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio eta Finantzak.
- Aho eta Hartz-Heginen Higienista.
- Instalazio Elektroteknikoak.
- Hirigintza Proiektuen Garapena eta Eragiketa Topografikoak.
- Proiektu Mekanikoen Garapena.
- Zur eta Altzari Ekoizpena.
- Mekanizatu Bidezko Ekoizpena.
- Estetika.
- Eraikuntza Metalikoak.

Batxilergoa, LH-II
Formakuntza Zikloak (Sartzeko probarekin)
Maitzaren 2tik 12ra (biak barne)

GAUEKO TXANDA

L.H-II

- Galdaragintza, Txapazkoa eta Egiturazkoa.
- Delineazio Industrial.
- Altzarien Diseinua eta Fabrikazioa.
- Instalazio eta Linea Elektrikoak.
- Trokelgintza eta Moldeak.

*OHARRA: Gaueko txandako zikloen eskaintzan falta dena Maiatzaren 8-tik aurrera argitaratuko da, hezkuntza sailak erabakitakoaren arabera.

*A eredu.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- Sarbidea: Oinarriko Hezkuntza amaitutakoan.
- Iraupena: 2na urteko zikloan banatutako 4 ikasturte.
- A eta B ereduak.
- Titulazioa: Bigarren Hezkuntzako graduatua.
- Irteerak: Batxilergoak eta Maila ertaineko Heziketa zikloak.



Nicolás Larburu Institutua

Aldapa, 3 BARAKALDO 48901 TLF.: 94 437 50 02 / 94 437 50 03 Fax: 94 438 64 17